

Aretxagazeta

AFRIKAKO

DANTZAK GUREAN

AFRIKATIK
DATOZEN
DOINUA,
ERRITMOA,
MUGIMENDUA
ETA UMORE
ONA
DENON
ESKURA



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Artisauen VII.
ferixie /9-12



GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 7
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 8
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institutua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAIINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdiak 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: GOROUETA
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 11:30

GELLAO/GALARTZA/IZURIETA
Hilabete honetan ez dago mezarik.

OHARRAK

ZAPATU ARRATSALDEAN KIROL ETXEA ITXITA EGONGO DA
Bihar, zapatua, 13:30ak arte egongo da zabalik kirol etxea.

KURTZEBARRIKO KARTEL LEHIAKETA

Kurtzebarriko 75. urteurrena ospatzeko Kartel Lehiaketa antolatu du Murruxikok. 50x70 cm-koa izan behar du eta disketean ekarriz gero DIN A3-koa izan daiteke. *Kurtzebarriren 75. urteurrena irailak 14 jarri behar du kartelean. Ekainaren 23a baino lehen eroan Murruxikora. Saria 150 euro da.*

ANDRAMAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA

Andramaixak iragartzeko erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. *Andramaixak 2003 abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a Aretxabaleta jarri behar du. 23a baino lehen eroan kultura etxera edo udaletxera. Saria 270 euro da.*

ANDRAMAIXETAKO ESALDI LEHIAKETA

Andramaixak ondo pasatzeko dioten esaldien lehiaketa antolatu dute Kultura eta Prebentzio sailek. 13 urtetik gorako aretxabaletarrak har dezakete parte. Ekainaren 23a bitartean kultura etxera edo udaletxera eroan behar dira.


LORAMENDIREN AGENDA

'DAKIXENAK EINDAIXELA'
Loramendi EEk hilero banatzen du Kurtzebarri Eskolan *Dakixenak eindaixela* esku-orria. Bertan agertzen den lehiaketan parte hartu gura duenak hilaren 15a baino lehen sartu behar du galderaren erantzuna udaletxe zaharreko atartean duen postontzian. Jasotako erantzunen artean Sorkun taldearen CDa zozketatuko dute hilabete honetan.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Aitor Antxia alkatea epaitu zuten Bergaran


Aitor Antxia Leturia alkatea Bergarako epaitegian egon zen deklaratzeko, agintaldia bukatzeko egun gutxi falta zitzaizkiola. Aretxabaletako Udala intsumiso egiteagatik eta Espainiako armadari lagundu gura ez izateagatik (mutilen zerrendarik ez ematea...) deklaratu zuen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Besakara"

1. Besakada, besoak bete gauza. — *Joan txabolara ta besakara bat egur ekarri.*
2. Beso kolpea. — *Egundoko besadaria bota najotsan pelotiai ta kale.*



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Hiru ahizpa'

Hiru ahizpa eta ama dira ipuin honetan protagonistak. Aita hil zenetik jostun bezala gogor lan egin beharra daukate laurrek bizimodua aurrera atera ahal izateko. Ahizpa gazteenak ez du oso ondo hartu aita-aren heriotza eta beti dabil gaixo antzean.



HIRU AHIZPA

Juan Kruz Igerabide
Erein, 2003
69 orrialde

Beldurrezko ipuin baten antza du liburu honek, Jekyll doktorea ekarriko digu gogora, edo Txanogorritxoren ipuina, edo beste zenbait. Azken batean gertaera latz bat kontatzen duen ipuin errealista bezala ere deskriba daiteke, eta inozentziaren inguruan hausnarketa egiteko balioko digu.


Gazteek zein helduek gustura irakurtzeko moduko istorioa duzue honako hau, luzea ere ez da-eta.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Eneko Azkargorta
4an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta anaiaren partetik.



ARETXABAETA
Iker Mtnez. de Agirre
6an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



LEINTZ GATZAGA
Ibone Agirregabiria
8an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
Aitor Ayastuy
8an. Zorionak eta ondo pasatu, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
Lorea Lasagabaster
11an. Zorionak eta muxu handi bat, Josuren eta Amaiaeren partetik.


Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez! Ekarriz ezazu bere argazkia* eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**


MIRVAT

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05




ATREBENTZIAEZPADA/ Aretxabaletako Udalak webgunie jarri dau martxan; ezaguketan dozu?



JUAN CARLOS PÉREZ
Langillie




NURIA ZAPATA
Ikaslie



ANDER OLIDEN
Langillie



LEIRE LOZANO
Ikaslie



ROBERTO URRETA
Langillie



PILAR BARCINA
Langillie

Ez, ondiokan ez. Mondraguekue ikusi dot eta ondo dau, baiñe Aretxabaletan jarri dauenik be ez nekixen. Holako webguniek herriko informaziñue jasoteko bide ona dala pentsetan jat.

Ez, ez dot ikusi. Badakit inguruko herrixek badaukiela webgunie, baiñe ez nekixen Aretxabaletak be baeukenik. Neri, behintzet, ez dot uste askotarako baliokoko dustenik.


Entzunde neuken jarri dauela, baiñe ondiokan ez dot webgunie ikusteko aukerarik euki. Interesantie da holako zerbait eukittie, eta oin erabilpena topau biherko jako.

Bai, kuriosidadie neuken eta webguniei bisitatxo bat egin nutzien. Pentsau jaten argazki gutxi eukela, baiñe bestela ondo dau. Herriko informaziñue jasoteko baliokoko dauela uste dot.

Bai, enteraute ninguen, baiñe ondiokan ez dot ikusi. Oin, Udalak daukon informaziñue hor jarri biherko leuke. Urte batzutara egin biher dittuen etxebizitzan gaineko notiziak, adibidez.

Ez naz webgunien sartu. Hala eta be, laster sartuko naz. Idea ona dala pentsetan jat. Udaletxian ordute egixe oso laburre da, eta tramite asko egitteko baliogarrixe izengo da webgunie.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK UDA FUTBOL ELKARTEARI Denboraldi hasieran inork ez zuen gura UDAko Zuzendaritza batzordean sartu. Hala ere, arazoak arazo, UDAk beste futbol denboraldi bati egin dio aurre. Eta ez edozelan, gainera. Izan ere, erregionaleko bigarren mailako taldea mailaz igo da, infantilak Gipuzkoako txapeldun izan dira eta preferente mailakoak ere ez dira txarto ibili. Zorionak, guztiei! /A.L.

ETABARRUAN...

URTEURRENA /04

Bitoriano, 50 urte apaiz

Apaizgoaren urrezko ezteiak egingo ditu Bitoriano Aranburuk hile honetan.

ELKARRIZKETA /05

Mikel Arroiabe

Araba Euskaraz 2003 antolatzen dabil Mikel Oionen dagoen San Bizente ikastolan.

KIROLAK /8-9

Igoera fasean, txapeldun!

Erregionaleko bigarren mailakoak mailaz igo ziren, hilaren 31n jokaturako partidua irabazita.

ASTEKODATUA

10

SARI BANATU ZITUEN ARETXARTE ELKARTEAK

Aretxartek, Aretxabaletako Merkataritza Elkarteak, 60 euroko hamar sari banatu zituen eguztanean, hilaren 4an. Udaberriko kanpainaren barruan egindako zozketan banatu dituzte opariok.

BESTEKEESANA

“


Batzorde nagusiak autopista erabiltzeagatik kobratzen jarraitzeko erabakia hartu zuen eta hala

finkatu da. Dagoeneko, ekainaren 6tik aurrera, erabiltzaileek orokorrean, batez beste, %50 gutxiago ordainduko dute autopista. Horrek, nire ustez, zergati konkretu bat dauka: azken batean, A-8 autopista azpiegitura garrantzitsua da, eta hobekuntza eta mantenu sistema bat behar du. Gainera, autopista horretan, datozen hamar urteotan, inbertsio garrantzitsuak egingo dira.

Hirugarren karril bat egin gura dugu; beraz, autopistak lau karril beharrean sei izango lituzke. Horrez gain, Donostialdeak daukan trafikoko arazoa arindu gura dugu, eta hainbat lotura berri egingo dira.

KOLDO AZKOITIA
Arrasate irratia/03-05-29

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Azken sprint-a

Urtien erdi ingurure ailegau gare, eta batzundeko azken sprint-e izengo da, nahiz eta ondio beste urte erdi be geraketan dan lanien jarraitetako.

Alderdi politikuek maitezak 25ien heldu zien helmugara. Beti pasetan dan moduen, batzuk beste batzuk baino hobeto eruen daue etapie, baine hala eta be, danak atara biher izen daue izerdi apur bat azken marrara ailegau ahal izeteko. Hemendik aurrera geraketan jakuen bidie be ez da laue izengo, bertan be aldatzak agertuko die. Eta, ez gainera, edozelako aldatzak.

Ikasliok, barrez, ointxe gaz bete betien geure onenak emuteko asmuaz. Ez da lan samurre aurrien daukouena. Hala eta be, zezanak harrapetie baino, hobeto da guk beroni adarretatik hobaketie. Askok esaten daue ikaslion bizimodu dala onena, baine hau sasoiu heltzen danien papelak

trukauko ditugu, eta holan ikusiko daue egixe edo gezurre dan esaten dauiena.

Jakine da, azterketa baten ikasitako dana erakustie gatxa dala, baine ondio bestelako sistemarik asmatu ez danez, holan jarraitu biheko da.

Sprint-a ein ostien, sariren bat etorri biheko da atzetik!

Eguraldixe lagun izetie da lehenengo eskatu ahal dana, honek beti bestelako poztasun bat emuten dauelako. Aurten, hala eta be, hondartzara fateko hori kontuoi lan

nekeza izengo dala uste dot. Danok txapapoterik ez dauen lekuren bat topau gureko dou, eta horren aurrien beste alternatibaren bat topau biheko da. Ekologista batzuk hasi die euren mezue zabalketan, eta hor be danetik egongo da, beste askotan letxe!

Hemendik esan neikien bakarra hauxe da: izerdi gutxi bota, lanak ondo ein, eta ikasten jo eta su dabitzenei animo!!!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Neu be kuxkuxien

Batzuk joan eta beste batzuk etorri. Joan doiezenak, hala eta guztiz, bazkarixe egindde joango die. Izen be, Bata-sunako zinegotzixek eta alkatiek berak, bazkarixe egingo daue Taberna Barrin zapatuen udaletxe-ko langilliekin. Lau urtetako hasarriek alde batera itxi, eta tripie beteta esango dotzie agur alkarrri; ez dau txarto!

Bapo afaitten joango dan beste bat Neida Gabilondo da. Berai tokau jako Goitbko Sarre-ra Doan programan zozketau euien afaixe. Bergarako Torrekua erretegiaren da, eta aste-bukaeran jaixek die Bergaran, hortaz, ezin hobeto. Neuk be deittu biher dot hurrenguen Sarrera doanera, zer eta afaixe debalde. Gero zeñekin joan asmau biherko neuke, baiñe hori beste kontu bat da.

Astien Indiatik etorritteko hiru emakuma ikusi dittut herrixen. Inazio Galdos mixiolari-xen moja lagunek ei die, eta Valladolidera etorri die gazteleraz ikesten. Gurera etorri barik ez euien geratu gure eta egun pare bat egin dittue. Hurrenguen gehixau.

Bukaketako bi kontutxo: batetik zorionak UDako jokalariz gaztiei 1. Regionalera igotie lortu daue-eta. Bestetik gogoratu domekan Araba Euskaraz dala Oionen. Mikel zain eukiko dogu.

URTEURRENA/ Aretxabaletarrek omenaldi apal baina beroa egingo diote ekainaren 15ean

Bitoriano Aranburuk apaizgoaren urrezko ezteiak beteko ditu aurten

MIRARI ALTUBE

Urte askoan Aretxabaletako parroko izandako Bitoriano Aranburuk apaizgoaren urrezko ezteiak beteko ditu aurten. Hori dela eta, aretxabaletarrek omenaldi apal baina beroa egin gura diote. Hala, ekainaren 15ean meza eta bazkari ederra izango dituzte.

1953ko ekainaren 29an izendatu zuten abade Bitoriano Aranburu. Segituan etorri zen Aretxabaletara, eta geroztik hemen egon da.

50 URTE ARETXABALETAN

Arrasatearra da, eta hango San Joan Bataiatzailearen parrokiari izendatu zuten abade, baina segituan ekarri zuten Aretxabaletara. Abuztuaren 15ean, Andramari Egunean, esan zuen lehenengo meza Bitorianok gurean.

Aretxabaleta eta aretxabaletarrek inork baino hobeto ezagutzen ditu Bitorianok. Ia 26 urte eman zituen On Angel Garmendia parrokoari laguntzen. Izurietako parroko ere izan zen, eta 1979ko uztailean Aretxabaletako parroko izendatu zuten. 17 urtean izan zuen parrokiako ardura; hortaz, zenbat bataio, jaunartze eta ezkontza zuzendu ote ditu hark... Azken urteotan osasunak ez dio askorik lagundu, eta horrexegatik utzi zuen



ARTXIBOA

Orain dela 50 urte izendatu zuten abade Bitoriano, eta guztiak gurean pasatu ditu.

1996an parrokiako ardura; bat utzi eta beste bat hartu, auzoetara joaten hasi zen-eta.

Hala, merezitako omenaldia egin gura diote aretxabaletarrek.

Hilaren 15ean meza izango dute lehenengo eta geroko bazkaria Taberna Berrin. Horretarako eguna baino lehen eman behar da izena jate-txean, eta 30 euro ordaindu.



Dantza afrikarrak ikasten dabil 22 laguneko talde bat

Azken asteotan dantza afrikarrak ikasten dabil aretxabaletarrez, arrasatearrez eta eskorriatarrez osatutako talde txiki bat. Magdalena Milano venezuelarra eta Aisha burkinafasarra dituzte irakasle. Aishak, gainera, dun-dunak jotzen dizkie, dantzan egin dezaten. Gorputzeko erritmoaz gainera, umore ona eta barrea dira nagusi ikastaroan. /M.A.


ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

IBARRA

estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

ELKARRIZKETA

MIKEL ARROIABE/ARABA EUSKARAZ 2003KO ANTOLATZAILEA

“Oion bezalako leku baten ikastolak 25 urte betetzeak meritu handia dauka”

MIRARI ALTUBE

Domekan ospatuko dute Oionen aurtengo Araba Euskaraz. Hango San Bizente Ikastola dabil antolatzen, eta han Mikel Arroia-be aretxabaletarra aurkitu dugu. Lan asko egin du hark, tartean, *Katxi* pertsonaia diseinatu.

Zer egiten du aretxabaletar batek Oionen?


Irakasle askori gertatzen zaien moduan, nik ere hainbat lekutan lan egin behar izan dut. Lau probintzietan lan egin ondoren Oionen finkatu dut neure burua urte batzuetarako. Dagoeneko badaramatzat urte bi, eta oso gustura nago.

Zelakoak dira Oion eta San Bizente Ikastola?

2.000 biztanle inguruko herri txikia da, eta mahastiz eta oli-bondoaz inguratuta dago. Arabako Errioxan dagoenez, Logroño-oren eragina handia da. Leku eta egoera konkretu honetan Oion-go San Bizente Ikastola sortu zuten orain dela 25 urte, eta Arabako Errioxako, Nafarroako eta Logroño-ko ikasleak jasotzen ditu.

Buru-belarri ei zabilta Araba Euskaraz antolatzen. Zein lan egin behar izan duzu?

Orain arte diseinu kontuetan ibili naiz: logotipoa, *Katxi* per-



ARTXIBOA

tsonaia, webgunea osatzen duten hainbat material... Materiala saltzen ere hainbat herritan egon naiz, Aretxabaletan tartean, eta azkenaldian komunikabideekin berba egitea tokatu zait. Araba Euskaraz-ko batzorde iraunkorreko partaide ere banaiz.

Zer topatuko dugu domekan Oionen?

Ibilbidea hiru gunetan banatu dugu, eta horiei atsedene-gune bi gehitu dizkiegu. Lehenengo gunea ikastolari dagokio. Bertan hasiko dugu Araba Euskaraz eta arratsaldean Joseina Etxebe-

rriaren Disko Festarekin bukatuko dugu. Bigarren gunea San Justoko zuhaitzia da. Gazteen-dako kontzertu ugari izango dira: Ken Zazpi, Txapelpunk... Hirugarren guneari COMY-Trujal gunea izena jarri diogu. Familia giroko gunea da, eta sagardotegia du. Kontzertuei dagokienez, Kontraio, Sen eta Tapia ta Leturia entzungo ditugu zuhaitz artean.

Zertarako erabiliko duzue batutako dirua?

Hirugarren aldiz egingo da Araba Euskaraz Oionen. 1997an eraikin berria egin genuen, gaur egun DBHrako darabilguna, baina oraindik dezente falta zaigu eraikin hori ordaintzeko. Bestetik, 0-3 etapa bultzatu guran gabilta. Baina arazo handiena garraioan daukagu. Ikasle kopuru erdia da oiondarra, eta besteak autobusez datoz. Logroñotik bertatik 58 ikasle datozkigu, eta bertako ikasle kopurua gora doanez, datoreen urtean bigarren autobusa ipini beharko dugu.

Aretxabaletarrei zer bait eskatu gura diezu?

Eskatu baino gehiago, Oionera gonbidatu gurako nituzke, eta egun polita pasatuko dutela esan. Bide batez, erakutsi gurako nieke euskara defendatzeko hainbat era eta egoera daudela, eta jabe daitezela Oion bezalako toki baten ikastolak 25 urte betetzeak meritu handia daukala.

TXUTXUMUTXUA



Aretxartek 60 euroko 10 sari banatu ditu

Aretxabaletako komertzioen elkarteak, Aretxartek, 60 euroko 10 sari banatu zituen eguaztenean egin zuen lehiaketan. Udaberriko kanpainaren bukaera izan zen, eta hona hemen sariak irabazi dituztenen izenak: Elena Sánchez, Carlos, Bittori Ortueta, Ana Bengoa, Yolanda Gómez, Nati Arkauz, Josean Ortiz de Mendibil, Goio Besa, Maria Arranz eta Puri Blázquez. Orain herriko 41 dendatan gastatu ahal izango dute irabazitako saria./M.A.

LABUR

Uztailean egingo diren Udaleku Irekietan parte hartzeko, kultura etxean eman behar da izena

Uztailaren 1etik 21era bitartean egingo dira aurtengo Udaleku Irekiak. Bertan parte hartu gura dutenek ekainaren 10etik 20ra bitartean eman beharko dute izena kultura etxean. Izenarekin

batera 33 euro ordaindu behar dituzte ume bakoitzeko, eta lehenengo aldiz parte hartuko dutenek umearen izena agertzen den familia liburuko orriaren kopia eraman behar dute.

ORLA

Herriko plaza z/g ARETXABALETA

AZKARATE AROZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19.
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24

J.J. IRURE

ITURBENTZAN

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

ARQUERO

CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Maritxu

drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

URBALTZ

TABERNA

taberna

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

MUNDUTARRAKARETXABALETAN

LETICIA VIÁFARA

51 URTE / GERIATRIA LAGUNTZAILEA / KOLONBIA

**“Asko gustatzen zaizkit
zuen kultura eta balioak;
ondo zain itzazue”**

MIRARI ALTUBE

Lan faltak eta lau seme-alaba aurrera ateratzen beharrik ekarri zuten Leticia Aretxabaleta. 2000ko abenduaren 27an iritsi zen Madrilera Kolonbiako Buenaventura Valle herritik. Arrasaten ezagun bat zeukan, eta honantz etortzea erabaki zuen. Ez zaio damutu. Bost hilabete geroago aretxabaletar batekin ezkondu zen, eta geroztik oso pozik dago gurean: “Hamaika urtean lanean ibili ostean, lantegia itxi eta kalean geratu nintzen. Lau seme-alaba ezin nituela aurrera atera ikusi nuenean, hona etortzea erabaki nuen”, dio Leticia. Bi seme-alaba gazte-ena dagoeneko hemen ditu, eta zaharrenak ere lehenbailehen ekarri gura ditu, baita urtebeteko biloba ere: “Familia batuta egon behar da, banatzen denean arazoak sortzen dira”.

Beltzarana da eta badaki jakin-mina sorrarazten duela; hala ere, lasai hartzen ditu begirada horiek guztiak: “Ez zaizkit inporta begirada kuriosoak; izan ere, atea jo

dudan leku guztietan lagundu egin didate”.

Geriatría laguntzaile ikastaroa bukatu berri du eta Urats Gain zaharren egoitzan egiten du lan egun batzuetan: “Beti-danik atsegin izan ditut nagu-

**“Beti atsegin izan
ditut nagusiak, eta
atentzioa eman
zidan zein ondo
zaintzen dituzuen”**

siak, eta atentzioa eman zidan zein ondo zaintzen dituzuen hemen. Horregatik joan nintzen zaharren egoitzara lan eske”. Euskara ikasi gurako luke: “Semeak dagoeneko badaki, eta nik neuk ulertzeko beste jakin gurako nuke. Hona gatozenok hori, behintzat, egin beharko genuke. Asko gustatzen zaizkit zuen kultura eta balioak; zain itzazue, guri gertatu zitzaiguna gerta ez dakizuen: lur, hizkuntza eta historia barik utzi gintuzten”.

HURRETIK

Mayra
Jiménez

KZGuneko begiraltza

Beragarra da eta Arte Ederretako ikasketak egin ditu. Ez daki Internet barik bizi izeten, eta oin, aretxabaletarrei Interneten zelan sartu eta ha zela ibilli erakutsiko dituzte.

Aspaldi inauguratu euen KZGunie, baiñe ez daue zabaldu oin arte. Zer pasatu da?

Interneten sartzeko linearik ez euen, eta ezin zan ibilli.

Zenbat ikasle dituzte?

Oin arte 81 lagunek emun dauz izena.

Zelako jentia da?

Danetik dago, baiñe nagusiek gehiago dauz, 40-50 urte ingurukuek. Ikastaro bat jubilaueko bakarrik jarri dogu.

Zer erakusten dutzete?

Ordenadore ibiltzeko oinarrizko eza-gutza batzuk, eta gero Interneten zela sartu eta ha zela ibilli. Geruago ikastaro aurreratuaguetan emungo ditugu.

Eskolak emuteko ze dozu gurago, umiek edo jubilauek?

Jubilauekin ointxe hasi naz, eta ez dakit zelan konponduko nazen, baiñe pazientziakin danek ikasiko daue.

Denpora librie pasetako zer gurago, Internet ala liburu bat?

Bixek, baiñe Interneten danetik dau, baita liburuak be.

Webgune bat errekomentaueko zeuke?

Asko dauz. Neri artien gaineko informaziñe daukon bat gustetan jat asko: *artehistoria.com*. Oso kompletue da.

Txateetie ala lagunekin kafe hartzen fatie?

Lagunekin egotie, baiñe ezin nazenien egon, Internet bittartez egitten dot berba eurekin, urrin dauzenekin be bai.

Zertarako ibiltten dozu Internet?

Danerako: berba egitteko, erosteko, musikie bajetako... Azken urtietako biajiek be Internetetik hartu ditut.

M.A.

NIREBIDAIAHURA/ Ekaitz Arantzabal

Herbehereak / 2000ko abuztua

Belgikan eta Holandan barrena familiarekin joan zen Ekaitz, eta bidaia antolatuen aldekoa ez bada ere, gustura egin zuela esan digu: “Bidaia antolatuko bat egitekotan hau gomendatuko nuke; izan ere, tarte motzak dira eta ez da astuna egiten”.

Hegazkinean joan ziren Bruselara, eta handik autobusean ibili ziren hara eta hona: “Bruselaz gain, Brujas eta Gante hiriak ikusi genituen Belgikan; biak ere oso politak: aurreko mendeetan eraikitako plazak, zubiak eta eraikinak dituzte. Postalak ziruditen”. Holandara bidean, bestalde, Alemanian sartu-irteha egin zuten: “Kolonian hirian katedrala erakutsi ziguten, munduko garaiena, eta Frankfurten ere egon ginen. Finantza zentro garrantzitsua da: bankuak, burtsa, merkataritza-gune ugari... Hiri berria eta modernoa”.

Holandan Rotterdam hiria ikusi zuten lehenengo, eta hango portuak atentzioa eman zien: “Munduko handienetakoa da. Gainera, 200 metroan gorantz errotan zaituen igogailua daukate, eta Holanda lauenez izugarriko bista dago”. Bai Belgikan bai Holandan industria asko daukate eta jende asko bizi da leku txikian: “Belgika zikinagoa iruditu zitzaidan: automobil asko, zarata ugari... Holanda asko hobeto antolatuta dago eta garbiagoa da”.

Amsterdamen Kale Gorria erakutsi zioten: “Guztiz artifiziala iruditu zitzaidan, turistak bata bestearen atzetik aspertuta zeuden erakuslehoetako neskei begira”. Holanda barrualdea ikustera ere joan ziren: “Itsasoaren maila baino beherago dituzenez lurrak, urez bete ez daitezten izugarriko urtegia daukate eginda”. Bidaia bukatzeko Luxenburgoko ikustera joan ziren: “Hiria bi maldatan dago kokatuta eta tartean zuloa dago; eta alde batek bestera joateko zubi ikusgarria egin dute”.

M.A.



Belgikako Gante hiriak kale, plaza eta eraikin ikusgarriak ditu.

**“Holanda
askoz hobeto
antolatuta
dago eta
garbiagoa da”**

**“Luxenburgoko
bi maldatan
dago kokatuta
eta tartean
zuloa dago”**



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- HaziakMitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA**

Aretxagazeta

FUTBOLA

Erregionaleko lehenengo mailara igo da UDAko bigarren futbol taldea

Gazteak taldeari irabazita lortu zuten lehenengo mailarako txartela

AMAGOIA LASAGABASTER

Erregionaleko bigarren mailako mutilek aurten ez dute lehenengo mailara igotzeko aukera alferrik galdu. Igoera faseko partiduak gogorak izan diren arren, azkenean, domekan, hilaren 1ean, Eibarko Gazteak taldeari irabazi eta mailaz igo dira.

Nedzad Zivogevic-ek zuzentzen duen erregionaleko bigarren mailako UDA taldeak lehenengo mailara igotzeko txartela lortu zuen joan den domekan, hilaren 1ean, jokatuak partiduan. Orduantxe jokatu zuten UDAkoek igoera faseko azken partidua. Eibarko Gazteak taldeak tinko defendatu zuen bere atea, baina aretxabaletarrak nagusi izan ziren (2-0).



ARTXIBOA

Nedzadek zuzentzen duen taldeak denboraldi bikaina egin du aurten.

TENTSIO HANDIA

Norgehiagoka jokatu zuten taldeek bazekiten hura izango zela lehenengo mailara igotzeko azken aukera. Horregatik, biek partidu gogorra jokatu zuten, eta tentsioa nabarmena izan zen, bai futbolzelaian, baita harmailtan ere. Izan ere, harmailtan Eibarko

jarraitzaileek behin baino gehiagotan bero-bero jarri zuten giroa.

ZUZENDARITZAREN ERABAKIA

UDAko Zuzendaritza batzordeak oraindik ez du erabaki datorren denboraldian erregionaleko lehe-

nengo mailan jokatu duen edo ez. Jokalariak maila horretan jokatzeke gertu dauden ikusi behar du Zuzendaritzak. Horrez gainera, aurrekontuari ere begiratu diote. Dena dela, laster hartuko dute erabakia.

TRIATLOIA

Urkuluko urtegian hasiko da Debagoieneko triatloi proba bihar, zapatua

Bihar, zapatua, Debagoieneko III. Triatloia jokatuko da. Urtero moduan, Urkuluko urtegian hasiko da proba. Kirolariak kilometro eta erdi egin beharko dute igerian; gero bizikletari helduko diote, azkenik, korrika egiteko.

Parte-hartzaileen artean Debagoieneko Antxintxika Triatloi Taldeko kideak ere egongo dira. Tartean, baita aretxabaletar batzuk ere: Oier Etxeberriak, Asier Barrainkuak eta Xabier Arenazak, behintzat, zapatuan Urkulun egongo direla aurreratu dute.

PILOTA

Debarroko Txapelketako finala jokatuko dute Errasti anaiek ekainaren 14an Elgoibarren

Martitzenean jokatu zuten Debarroko Txapelketako final erdia Aretxabaletako pilotariak Elgetako eta Elgoibarreko jokalarien aurka. Gazteen mailan Altube eta Kortabarriak galdu egin zuten Elgoibarkoen aurka 13-22. Nagusien mailan, ostera, Errasti anaiek partidu luze eta gogorra jokatu ostean elgetarrak mendean hartu zituzten 22-18. Orain finala daukate aurrez aurre, Elgoibarren ekainaren 14an, eta mondragoetarren kontra jokatzea tokatuko zaie. Partidu gogorra izango da duda barik, zorte on!

FUTBOLA

Igor Gordobil arrasatearra izango da preferente mailan UDAko entrenatzailea

Datorren urteko denboraldiari begira jarri dira dagoeneko UDAko Zuzendaritza batzordeko kideak. Izan ere, preferente mailako entrenatzaile Bittor Muxikak utzi egingo du taldea. Hala, Bittorren lekua Igor Gordobil 32 urteko arrasatearra hartuko du. Igor UDAko jokalaria izandakoa da lau urtez. Hala ere, ez da berehala hasiko lanean. UDAko jokalariek ondo merezitako oporrak hartu dituzte, eta uztaile arte ez dute entrenamendu saiorik egingo.

AZKENEAN, EGUNAK LUZEAGOAK DIRA APROBETXA EZAZU 2003KO UDABERRIA-UDA



Bezeroarentzako Arreta-Telefonoa:

902 222 152

Badugu bezeroarentzako arreta-telefonoa, behar duzun guztian zutaz arduratu ahal izateko.
Telefonozko arretaren ordutegia: 9:00-13:00 eta 15:30-18:30.

SPORTLAND
FORUM SHOPS

Zatoz zure Sportland dendara, Garibai Etorbidea, 2-6 Arrasate

ESKORIATZAKO

ekainak



F E R I X I E


Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 6a / 126. zenbakia

Eskoriatzako VII. Ferixie

Baserritarren eta artisauen
Ferixiek berrikuntza ugari
izango ditu aurten



Zazpigarren aldia beteko duen Ferixie berritasunez gainezka dator

AINTZANE GARDOKI

Baserritarren eta artisauen topeleku bihurtuko da zazpigarren aldiz Eskoriatza. Orain dela zazpi urte, Jose Arana Ikastolak, 25. urteurrena ospatzeko, 13 postuz osatutako azoka txikia egin zuen. Bihar, zapatua, berriz, 90 postu egongo dira. Eta hainbat berritasun egongo dira.

Artisauak eta baserritarrak goizean goizetik ibiliko dira animaliak, jakiak eta artisautzako produktu onenak jartzen euren postuetan, eta 10:30ean zabalduko dute VII. Ferixie.

Hasieran esan bezala, 90 postu egongo dira aurtengo ferian: baserritarren produktuak eta elikagaiak, artisauak, baserriko tres-

neria, umeendako egiten dituzten txokoak eta animalien txokoa egongo dira ikusgai. Animaliei dago kienez, herriko erdialdean egiten ari diren lanak direla-eta, aurten ez dute lekurik izango animalia handiek, baina txakurrak, mapatxeak eta kanguruak, behintzat, egongo dira. Herriarren postuak, lehenengo aldiz, Santa Marina plazan egongo dira. Aurten, gainera, azokak irauten duen bitartean, girotzeko musikaz gain bi kazetariren eskutik ferian gertatzen diren gorabehera guztien berri izango dute eskoriatzarrek eta ibarretik etorritako lagunek. Bestalde, Iñaki Perurenak eta semeak harri jasotzen jardungo dute 13:30ean, eta azoka itxi bitartean umeek gura duten beste jolas egiteko aukera izango dute aurten ere.



BESTETAN BAINO ANIMALIA GUTXIAGO. Eskoriatzako erdialdean egiten ari diren lanak direla eta, aurtengo azokan bestetan baino animalia gutxiago

egongo dira. Txakurrak, mapatxeak eta kanguruak Bolibarrerako bidean egongo dira bihar. Animalia handiagoak ez dute lekurik izango aurten.

EGITARAUA

- 09:00** Etxafuego jaurtiketa.
- 09:30** Txistularien kalejira.
- 10:30** VII. Ferixien hasiera: baserriko produktuak, elikagaiak, abereak, artisautza eta tresneria egongo da ikusgai.
- 11:00-14:15** Umeen txokoak:
JUNPING 4, eskulan lantegiak, puzgarriak.
- 11:30** VI. Txorimalo Lehiaketa, (4 eta 99 urte arteko umeendako).
- 11:30** Trikitilariekin kalejira.
- 13:30** Iñaki eta Iñazio Perurena harri-jasotzaileen erakustaldia.
Sari banaketa. Errifaren zozketa.
- 14:30** VII. Ferixien amaiera.
- 15:00** Herri bazkaria frontoian.




Eskoriatzako Ferixie HURBILDU BEDI JENDIE!



eskoriatzako
udala

FOTOSINTESIS



argazkiaritza

Kamerak
Karnetetako argazkiak
Ezkontzak
Estudioko argazkiak

Errebelatu
guztiak
24 ordutan

Ondo ibili Ferixen!

Herriko plaza 5 ARETXABALETA
943 79 79 67



VI. TXORIMALO LEHIAKETA. Arrakasta handia izan du aurreko aldietan Txorimalo Lehiaketak. Itxura askotariko txorimaloak egin izan dituzte herritarrek. Aurten ere talde ugari dute izena emanda bihar txorimaloak egiteko.



IKASLE GAZTEEN LANA. Arizmedi Ikastolako Almen gureko ikasleek makinatxo bat lan egiten dituzte azokan saltzeko. Aurten, ohiko bitxiez gain, marrubizko marmelada, bonboiak eta pintatutako elastikoak egin dituzte.



ARTISAU UGARI. Bihar, baserriarren produktuez gain, Eskoriatzako eta Euskal Herri osotik etorritako artisauek euren lanak erakutsiko dituzte azokan. Otarregintza, ehoziri lana, bitxigintza, burdingintza... eta beste.

ATREBENTZIAEZPADA/ Ferian parterik hartzen duzu? Zelako eguna da Eskoriatzarendako?



ISABEL UNZUETA
Erretiratua

Urtero joaten naiz ikustera, eta beti erosten dut zerbait; euskal pastela, adibidez, bizitza gozoagoa egiteko. Giro handiko eguna izaten da Eskoriatzan.



MIREN OSA
Langilea

Aste bukaeretan jeneralean kanpora joaten gara, baina feria egunean hemen geratzen gara. Holako egun gehiago izan beharko genituzke. Giro ona egoten da.




IÑAKI ELKOROBARRUTIA
Langilea

Antolaketa lanetan ez dut parterik hartzen, baina ikusle moduan ez dut hutsik egiten. Herriari asko ematen dio; giro polita sortzen da. Egun berezia da.



NAIA ZUBIA
Ikaslea

Bai, aurten ere umeendako lantegitxoetan ibiliko naiz. Ikastolaren azoka izanda, umei protagonista izaten lagunduko diet. Egun polita da herriarendako.



ABRAHAN IGLESIAS
Erretiratua

Gazta erosten dut, behintzat. Artisauen lana segitzen dut. Ferixie erreferentzia bihurtu da. San Pedroetan baino jende gehiago egoten da.



BEGOÑA GOROSARRI
Langilea

Azkeneko urteotan ikasleekin makinatxo bat lan egin ditut azokarako. Herritarrendako gogo handiz espero dugun egun bihurtu da Ferixie.

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

ONDO IBILI FERIXEN!

IREGI
GARRAIOAK

Tel.: 943 71 43 51
Mugikorra: 639 131 700

Ondo pasatu ferian!

Dorleta 4 - 1 Esk.
20540 ESKORIATZA

ELKARRIZKETA

MAITE BEITIA/ARIZMENDI IKASTOLA

“Ferixiek gelan landutako guztia praktikan jartzeko aukera ematen die ikasleei”

AINTZANE GARDOKI

Lehenengo bizpahiru urteetan ikasleek ez zuten lan handirik egiten ferian. Joan den aspaldian, berriz, garrantzi handia dute Ferixie antolatzeke orduan. Aurten apaingarriak, bonboiak eta marmeladak egin dituzte, besteak beste.

Ikasleen parte-hartzeak gora egin du azkeneko urteotan.

Bai, geroago eta parte hartze zuzenagoa dute ikasleek. 6 urtetik gorako ikasleek hartzen dute parte azkeneko urteotan. Lehen Hezkuntzako ikasleek, adibidez, gerrikoak, lepokoak, bonboiak, marrubi-marmelada eta erroskilak egin dituzte aurten; 14-16 urteko ikasleek, berriz, Enpresa Simulazioa deritzon ikasgaiaren barruan elastikoak eta bitxiak egin dituzte. Horrez gainera, azokan bertan umeendako egongo diren lantegitxoekin DBHko beste 45 ikasle arduratuko dira.

Zein da parte-hartze horren helburua?

Ikastola osatzen dugun partaide guztiok hartzen dugu parte Ferixie antolatzen: gurasoek, irakasleek, ikastolako ikasle ohiek eta herritar ugari. Baina ezin dugu ahaztu ikasleak direla partaide garrantzitsuenak. Ikasle horiek



AINTZANE GARDOKI

“Guraso, irakasle, eta herritar ugari hartzen dugu parte feriarene antolaketan”

“Aurten herritarren postu guztiak batera egongo dira Santa Marina plazan”

gela bertan lantzen dituzte alde aurretik hainbat gai: herrian parte hartzearen garrantzia, elkarlankidetzaren salerosketaren gorabeherak burutzen jakin... Nagusienek, aldiz, euren enpresaren ibilbidean erantzuten jakin beharko dute. Ferixiek landutako guztia praktikan jartzeko aukera ematen die ikasleei.

Jasotzen duten diruarekin zer egiten dute ikasleek?

Helburua ez da etekina ateratzea,

autofinantzaketa lortzea baizik. Dena dela, soberakinak lortzen badira, hurrengo urteko materiala erosteko gordetzen da. Enpresa Simulazioa ikasleek, berriz, mozkinak ateratzen badituzte, kooperatiba sisteman oinarrituz mozkin horiek banatu egingo dituzte enpresa osatu dutenen artean.

Zer eman gura dio Ferixiek Eskoriatzari?

Ikastola osatzen dugun partaideon lankidetzarekin, Eskoriatzako herritarrei euskal giroan gauzak ikusi, erosi, saldu, ukitu eta jolasteko egun berezia eman gura diegu. Herriaren eta elizateen arteko harremana indartu gura dugu azokarekin. Aurten herritarren postu guztiak batera egongo dira Santa Marina plazan; lehen, baserritarrak herrira jaisten zirenean, plaza horretan egiten zuten oinetako aldaketa-eta. Azken baten, urtero, ekaineko lehenengo zapatuan Eskoriatza erreferentzia, erakusleho, bihurtu gura dugu.

Egongo da berritasunik?

Bai, berritasun ugari, gainera: *Jumping 4* egongo da umeendako; gazte eta haur txokoak indarberritu egin ditugu; Perurena aita-semen ikuskizuna egongo da; megafonia sistema indartu egin dugu, eta bi kazetariren lanari esker, gertatzen diren gorabeheren berri jakin gura dugu uneoro.



ARRANDEGIAK J. EGUREN

Arrain freskoa eta izoztua

Santa Marina 32. Tel.: 943 79 59 06. ARRASATE

Santa Ana 11. Tel.: 943 71 48 61. ESKORIATZA

ONDO IBILI FERIXEN!



AZKOAGA
ESTANKOA

Zure zerbitzura
ESKORIATZA

Zatoz Ferixara!
Ondo ibili danok!

Mendraka
Txakolina

Tel: 94 682 00 00
ELORRIO

Elkarlanerako hitzarmena sinatu dute Goienak eta HUHEZIK

AMAGOIA LASAGABASTER

Martitzenean, hilaren 3an, Goiena Komunikazio Zerbitzuek eta Eskoriatzan dagoen Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntzen Zientzien Fakultateak (HUHEZI) lankidetzarako hitzarmena sinatu zuten. Akordioa datozen lau urteotarako izango da.

Komunikazioaren alorrean zeresan handia dute Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak eta HUHEZIK. Horregatik, interes bi horien bateratzea egin dute. Hala, martitzenean, hilaren 2an, Goienako zuzendari nagusi Iñazio Arregik eta HUHEZIKo dekanok Jose Antonio Mendikutek lankidetzarako hitzarmena sinatu zuten. Erakunde biek Komunikazioa Enpresan izeneko ikasketak hartuko dute ardatz lankidetzak bultzatzeko datozen lau urteotan.

HAINBAT PROIEKTU

Hitzarmenaren helburua da bien interesekoak diren proiektuetan lankidetzak bultzatzea. Goienak, adibidez, bideak zabalduko ditu HUHEZIKo ikasleek ikasketak amaiarako praktikak Goienan ber-



Goieneko zuzendari Iñazio Arregi eta HUHEZIKo dekanok Jose Antonio Mendikute pozik azaldu ziren hitzarmena sinatu eta gero.

tan egin ditzaten. HUHEZIK, bestalde, zeresan nabarmena izango du Goienako langileak prestatu eta trebatzerako orduan. Hitzarmenak, gainera, elkarren arteko hain-

bat proiektu garatzeko eta gauzatzeko balioko du.

Erakunde biek sinatutako hitzarmenak batak bestearen azpiegiturak erabiltzeko aukera

ere emango du. Betiere, jakina, elkarrekikotasuna bilatuta.

Hasiara baten akordioa lau urterako izango da, baina luzatzeko aukera izango dute.



Hondarribian euskaraz jolas egitea helburu

Joan den maiatzaren 24an Luis Ezeiza Ikastetxeke 110 ikasle eta gurasok Hondarribiko aterpetxean pasatu zuten eguna. Eskolako Guraso Elkarteak antolatutako irteerak umeez eta gurasoek elkarrekin eguna pasatu eta jolasen bitartez euskara bultzatzea zuen helburu. Goizeko eguraldi kaskarrak ez zuen festa ilundu, eta arratsaldean, eguzkia lagun, Hendaia bisitatu zuten. Festa giroan segituz, datorren ekainaren 14an eskolako jaia ospatuko dute.

LABUR

Autoak jota gizon bat hil da Ederlan aurrealdean

Martitzenean, ekainaren 3an, goizeko hamaikak aldera istripua gertatu zen Ederlan parean. Seat markako auto batek bidea gurutzatzen ari zen oinezko bat harrapatu zuen. Julian Uriarte Eskibel 82 urteko aretxabaletarra jo zuen autoak. Anbulantzia laster iritsi zen istripua gertatu zen lekura. Lehenengo laguntzak bide ertzean bertan jaso zituen aretxabaletarrak, baina Arrasateko eskualde ospitalera heldu aurretik hil zela jakinarazi digu Ertzaintzak.

KZGunea zabaldu dute kultura etxeko lehen solairuan

Joan den egubakoitzean, maiatzaren 30ean, inauguratu zuten KZGunea Eskoriatzan. Kultura etxeko lehen solairuan dago, eta zortzi orde-nagailu daude, herritarrek Internet erabiltzen ikasteko eta sarean nabigatzeko. Astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, 16:00etatik 20:00etara, eta informazioa jasotzeko edo antolatuko dituzten ikastaroetan izena emateko KZGunea dituzte behar da 943 71 30 43.

Iñaki Pierruguesek eskerrak eman dizkie herritarrei

Eskoriatzako PSE-EE alderdiko alkategai izan den Iñaki Pierruguesek eskerrak eman dizkien herritarrei, berarengan jarritako konfiantzagatik, joan den egunean kale-ratutako prentsa oharrean. Era berean, bakearen eta askatasunaren alde lan egiteko eskatu zion hurrengo alkateari. Herritarren parte-hartzea bultzatuko duen eta Udaleko sail guztiak bat egingo dituen Tokiko Agenda 21 ardatz har-tzea proposatu zion.

Akeita taberna

PINTXOAK ETA OGITARTEKOAK

Zatoz Ferixara eta egiguzu bisita!

SANTANA 23
TEL: 943 71 50 94
ESKORIATZA

Ia bost hilabetez itxita egon ondoren, bihar zabalduko dute Toki Eder elkarteak

AINTZANE GARDOKI

Garro jauregiak urtarrilaren 11n su hartu zuenetik hona itxita egon da Toki Eder. Langile ugari ibili dira kaltetutakoak konpontzen. Baina lan handienak amaituta, garbiketa lanek eta ateko sarraila aldatzeko lanek atzeratu egin dute elkartearen irekiera.

Toki Eder elkarteko batzordeko presidente Dorleta Elkorobarrutiak esan digu lan handienak aspalditxo amaitu zituztela langileek: "Garbiketa lanak eginaz bat, ate nagusiko sarraila aldatzea besterik ez zen gelditzen. Gure gogoa elkartearen lehenago zabaltzea zen, baina kontu bat dela eta beste bat dela, ezinezkoa izan da".

Arotzak bigak garbitu, lixatu eta zorua bota eta gero, argiketariak, eskaiolistak eta pintoreak ibili dira lanean. Hasiara baten hiruzpalau astean lanak amaituko zituztela uste zuten arduradunek, baina ez da horrela izan: "Herritarrak dagoeneko irrikaz daude elkartearen erabiltzen hasteko. Asteon ateko sarraila aldatu dute eta bazkideen artean giltza berriak banatu ditugu. Hortaz,



Lau hilabete eta erdi itxita egon ondoren, bihar zabalduko ditu ateak Toki Eder elkarteak.

bihar, ekainak 7, elkartearen irekiko dugu", esan digu Dorleta Elkorobarrutiak.

Dena gertu dago, bada. Itxura aldaketa handirik ez du izan

elkarteak: "Paretetako koloreak aldatu egin ditugu, baina bestela, gauzak lehengo moduan daude", esan digu Dorletak. Eskatuta dituzten altzari berriak oraindik

heldu ez direnez, datozen asteotan jarriko dituzte. Eta urteko batzar orokorra ahal den bezain laster egin gura dutela esan digu batzordeko presidentek.

"Gure gogoa elkartearen lehenago zabaltzea zen, baina ezinezkoa izan da"

"Herritarrak dagoeneko irrikaz daude Toki Eder elkartearen erabiltzen hasteko"

"Paretetako koloreak aldatu egin ditugu, baina bestela, gauzak lehengo moduan daude"



Oihana Aizpuru da idazkari laguntzaile berria

Maiatzaren 14a ezkeren Oihana Aizpuru soralezetarra da Udaleko idazkari laguntzaile berria. Idazkari laguntzaile izateko bederatzi lagunek egin zituzten azterketak; eta guztien artean Oihana izan zen azterketa teorikoa eta praktikoa gainditu zuen bakarra. Hortaz, idazkari lanetan eskarmentu handia duen soralezetarra izango da datozen hilabeteotan idazkari laguntzaile. Oihanak ez zuen Gatzaga ezagutzen, baina oso gustura dagoela esan digu.

LABUR

Ume bi jaio dira herrian azkeneko asteotan

Apirilaren 30ean Unai Azkoi-tia jaio zen; maiatzaren 4an, berriz, Elena Angulo. Gatzagar biok Gasteizen jaio ziren. Udaleko idazkari Josune Mendikutek maiatzaren 19an izan zuen semea, Iker, Arrasateko ospitalean. Azkeneko bost urteotan 20 neska-mutiko jaio dira Leintz Gatzagan. 1998an hamaika ume jaio ziren; 1999an, bat ere ez; 2000n, lau; 2001ean, bakarra; 2002an, mutiko bi; eta 2003an, azkeneko neska-mutil biak.



Ondo ibili Ferixen!

Gure Ametsa

**Ezkontzak
Jaunartzeak
Enpresa bazkariak
Euskal janari tradizionala**

Tel. eta faxa: 943 71 49 52
LEINTZ GATZAGA



ALTUNA
HARATEGIA
San Pedro 3
ESKORiatZA



ANGELINES
AUTOZERBITZUA
Mitarte 16
ARETXABALETA



BEATRIZ
ARRANDEGIA
Otalora 19
ARETXABALETA



BENGOA
HARATEGIA
Durana 9
ARETXABALETA



CHARTER
JANARI DENDA
Aranburuzabala 3
ESKORiatZA



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
Errekabarren 14
ARETXABALETA



ETXABE
HARATEGIA
Durana 4
ARETXABALETA

OSAGAI ONENAK GURE KONTU

Prestatu, zuk prestatuko
duzu ondoen,
baina osagai onenak
gurean eskuratu
ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.



IMANOL
JANARI DENDA
Gorbea 8
ARETXABALETA



IOSU
HARATEGIA
Mitarte 1
ARETXABALETA



JON
HARATEGIA
Loramendi 1
ARETXABALETA



LEIBAR
ARRANDEGIA
Loramendi 1 / Mitarte 1
ARETXABALETA
Aranburuzabala 7
ESKORiatZA




PAGALDAI
HARATEGIA
Gaztainadui 15
ESKORiatZA



ZUBIA
HARATEGIA
Santa Ana 11
ESKORiatZA

GRUPO **RKUZ** 1950-2003

Zure etxea da




Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

